

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Donemiliagako udalerriko kontzejuen gastu arruntak, obrak eta jarduerak finantzatzeko udal laguntzen 2020ko deialdia eta oinarriak

Udalbatzak, 2020ko maiatzaren 13an egindako bilkuran, Donemiliagako kontzejuen gastu arruntak, obrak eta jarduerak finantzatzeko 2020ko udal dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak onetsi zituen.

Bat etorri Dirulaguntzen azaroaren 27ko 38/2003 Lege Orokorrek 9.3 artikuluan, Dirulaguntzak arautzen dituen udal ordenantzaren 4.4 artikuluan, eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 45.1 artikuluan xedatutakoarekin, argitaratu egiten dira haiek, guztiek jakin ditzaten.

1. OINARRIA. DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen xedea da udalerrri honetako kontzejuak 2019an zehar egin edo sustatu dituzten gastu arruntak, obrak eta jarduerak finantzatzeko laguntzea, oinarriko zerbitzu publikoak eta herritarren bizi kalitatea hobetzeko helburuaz egin badira.

2. OINARRIA. ERAKUNDE ONURADUNAK

Donemiliagako udalerrriko kontzejuak eskatu ahal izango dute dirulaguntza.

3. OINARRIA. DIRULAGUNTZAK ESKURATZEKO BALDINTZAK

Diruz laguntzekoak izango dira udalerrri honetako kontzejuak 2019an zehar egin edo sustatutako gastu arruntak (argiteria, klorazioa...), obrak eta jarduerak.

Deialdi honen babespean ematen diren dirulaguntzak 2020ko ekonomia ekitaldirako aurrekontu orokorreko 943 434.001 aplikazioko aurrekontu esleipenaren kontura ordainduko dira.

Deialdi honetarako gehieneko aurrekontua 167.129,28 euro izango da.

Honako hauek ez dira diruz lagunduko:

– Beste laguntza edo deialdiren baten bidez diruz laguntzen diren gastu arruntak, inbertsioak eta jarduera bereziak, salbu eta haien diruz lagundu gabeko zatia.

– Otorduak, elikagaiek... sortutako gastuak.

4. OINARRIA. DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

1. Dirulaguntzak emateko aintzat hartuko diren irizpideak honako hauek dira:

a) Zenbateko finkoa, 12.629,28 euro, zein 789,33 euroko banaketa linealari dagokion, udalerrriko hamabost kontzejuen artean banatuko da, kontzejuak osatzen dituzten herriguneetako biztanleak hornitzeko diren ur andelak eta haien hoditeria kontuan izanik.

b) Ur andelen banaketa linealetik geratzen den zenbatekoa, 152.500 euro, hots, ehuneko 60 (91.500 euro), zati berdinetan banatuko da udalerrriko hamabost kontzejuen artean. Hori horrela, kontzeju bakoitzak 6.100,00 euro jasoko ditu.

c) Gainerako ehuneko 40, hau da, 61.000,00 euro, proportzioz banatuko da, kontzeju bakoitzak 2020ko urtarrilaren 1ean erroldaturik dituen biztanleen arabera.

Gastu arrunt, inbertsio eta jardueretarako, gehienez ere, zenbateko hauek emango zaizkie kontzejuei:

HERRIA	BANAKETA LINEALA KLORAZIOA	BANAKETA LINEALA % 60	BANAKETA BIZTANLEKO % 40	BIZTANLERIA 2020-01-01EAN	GUZTIRA
ADANA	789,33	6.100,00	4.540,73	53	11.430,06
AXPURU	789,33	6.100,00	2.141,85	25	9.031,18
TXINTXETRU	789,33	6.100,00	2.827,25	33	9.716,58
EGILATZ	789,33	6.100,00	4.112,36	48	11.001,69
GALARRETA	789,33	6.100,00	3.426,97	40	10.316,30
LUZURIAGA	789,33	6.100,00	2.313,20	27	9.202,53
MEZKIA	789,33	6.100,00	1.456,46	17	8.345,79
MUNAIN	789,33	6.100,00	2.741,57	32	9.630,90
NARBAIZA	1.578,66	6.100,00	9.938,20	116	17.616,86
OKARIZ	789,33	6.100,00	3.169,95	37	10.059,28
ERDOÑANA	789,33	6.100,00	3.512,64	41	10.401,97
DURRUMA	789,33	6.100,00	7.625,00	89	14.514,33
URIBARRI-JAUREGI	789,33	6.100,00	6.768,26	79	13.657,59
BIKUÑA	789,33	6.100,00	2.227,53	26	9.116,86
ZUHATZU	789,33	6.100,00	4.198,03	49	11.087,36
GUZTIRA	12.629,28	91.500,00	61.000,00	712	165.129,28

d) Aurrekontu aplikazioan aurreikusitako 2.000,00 euroko zenbatekoa auzo konpostajeko jardunbide egokietara bideratuko da.

Jarduera hori abian jarri duela eta horretan lanean diharduela egiaztatzen duen kontzeju bakoitzari gehienez ere 500,00 euroko dirulaguntza emango zaio, eta zenbateko hori kontzejuarentzat kalkulaturako dirulaguntza osoari gehituko zaio.

Baldin eta eskaera kopurua eta jasoko diren diru kopuruak direla-eta kontzeju bakoitzak jaso beharreko gehieneko zenbatekoa gutxitu behar bada aurrekontu partidan auzo konpostajeko jardunbide egokietarako ezarritako zenbatekora doitzeko, murrizketa proportzioan ezarriko zaie kontzeju eskatzaile guztiei.

2. Erakunderen batek esleitutakoa baino gutxiago erabili badu gastu arrunt, inbertsio edo jardueretan, soberakin hori 2020ko gehiegizko gasturako erabili ahal izango du, 2021eko deialdian eskatuta.

5. OINARRIA. ESKAERAK, AGIRIAK ETA KOBRATZEA

Onartutako dirulaguntza osoa jasotzeko, gastu arruntak, obrak eta jarduerak 2019ko ekitaldian eginak izan behar dira.

Eskatzaileek agiri hauek aurkeztu behar dituzte udal bulegoetan:

1. Eskaera, administrazio batzarreko lehendakariak sinatua, udaletxean eskuratu daitekeen deialdi honetarako inprimakian.

2. 2019ko diru sarrera eta gastuen kontua, Arabako Foru Aldundian aurkeztua.

3. Gastu eta inbertsioen zerrenda.

4. Beste erakunde edo organismo batzuetan izapidetutako dirulaguntza eskaerak adierazten dituen zerrenda zehatza eta egiaztagiria, bai eta jasotako dirulaguntzen frogagiriak ere.

5. Inbertsioak finantzatzeko plana.

6. Lautadako Kuadrillako Ingurumen teknikariak auzo konpostajeko jardunbide egokietarako dirulaguntzarako emandako txostena.

Egoki irizten bazaio, adierazitako agirioz gain, dirulaguntza emateko beharrezkoa den zernahi agiri, frogagiri edo faktura eskatu ahal izango da.

6. OINARRIA. AGIRIAK AURKEZTEA

Dirulaguntza deialdia egindakoan, nola dirulaguntza eskaera hala agiriak udal bulegoetan aurkeztuko dira. Dirulaguntza eskaerak eta frogagiriak aurkezteko epea 2020ko irailaren 7an amaituko da herri guztientzat.

Ezarritako epea (2020ko irailaren 7a) igarota, kontzejuak galdu egingo du deialdi honen bidez emandako dirulaguntza.

Salbuesenez, behar bezala justifikatutako zergatiengatik (data ahaztea ez da emango justifikatutzat), eta betiere udalaren berariazko ebazpena badago, epe hori hiru hilabetez luzatu ahal izango da gehienez ere.

7. OINARRIA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak jasotzen dituzten kontzejuak honako obligazio hauek bete beharko dituzte betiere:

– Emandako dirulaguntza onartzea. Dirulaguntza ematen zaiola jakinarazten zaionetik hamar egun igaro baino lehen onuradunak berariaz eta idatziz uko egiten ez badio dirulaguntzari, dirulaguntza onartzen duela esan nahiko du.

– Dirulaguntza jasotzeko bete beharreko betekizunak eta baldintzak betetzea.

– Udalaren egiaztapen eta finantza kontrola onartzea.

– Donemiliagako Udalak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta beste erakunde eskudun batzuek eskatzen dituzten argibide guztiak eman behar dituzte.

– Azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorrak eta Dirulaguntzen Udal Ordenantzak ezarritako betebeharrak.

Dirulaguntza eskatzeak oinarri hauek ezagutu eta onartzen direla esan nahi du.

8. OINARRIA. ESKAERAK AZTERTU ETA EBAZTEA, ETA DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEA

Idazkaritza-kontuhartzaitza zerbitzua ematen duen teknikaria izango da organo izapidegilea. Teknikari horrek ofizios egingo ditu datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatzeko beharrezko jarduera guztiak, eta haiei jarraikiz egingo du ebazpen proposamena.

Donemiliagako Udaleko alkateak dauka dirulaguntzak emateko eskumena, Informazio Batzorde Orokorrak proposamena egin eta dagozkion frogagiriak aurkeztu ondoren. Horiek eginda, onartutako dirulaguntza osoa ordainduko da.

Eskaerei buruzko ebazpena frogagiriak aurkezten direnetik hiru hilabete pasatu baino lehen emango da.

Epe horretan berariazko ebazpenik ematen ez bada, eskaera ezetsizat joko da. Ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari, eta bertan adieraziko dira haren aurka jar daitezkeen errekurtsioak. Ebazpena Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 42. eta 43. artikuluetan ezarritakoaren arabera jakinaraziko da.

9. OINARRIA. ALDEZ AURRETIKO ORDAINKETAK ETA KONTURAKO ABONUAK

Administrazio batzarrak egiaztatuko balu, dagozkion kontabilitate agiriak aurkeztuta, fakturaren bat ezin duela ordaindu, udalak beharrezko dirua haren kontuan sar lezake; administrazio batzarrak hamar egun izango lituzke, diru transferentzia egiten zaionetik aurrera, ordainagiria aurkezteko.

10. OINARRIA. BATERAGARRITASUNA BESTE DIRULAGUNTZA EDO LAGUNTZA BATZUEKIN

Deialdi honen babesean emandako dirulaguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek helburu berarekin emandakoekin, baldin eta dirulaguntzetan jasotakoa gastua baino gehiago ez bada. Jasotakoa gastua baino gehiago bada, murriztu egingo da dirulaguntza, gastua eta laguntza parekatu arte.

Donemiliagako Udala ez den erakunderen batetik dirulaguntza jaso dutenek adierazi beharko dute zein erakundek eman dien dirulaguntza eta zein izan den haren zenbatekoa.

11. OINARRIA. DIRUA ITZULTZEKO PROZEDURA

Emandako dirulaguntza itzultzeko prozedura Donemiliagako Udalaren dirulaguntzen ordenantzan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 37. artikuluan xedatutakoari lotuko zaio.

12. OINARRIA. DIRULAGUNTZA GALTZEA

Oinarri hauetan ezartzen diren betebeharrak eta zehaztapenak ez betetzeak dirulaguntza ezeztatzea ekar dezake.

13. OINARRIA. INTERPRETAZIOA

Oinarri hauek interpretatzean zalantzarik sortzen bada, Donemiliagako Udalak ebatziko du.

Aplikatu beharreko oinarrizko arauak dira Dirulaguntzen Udal Ordenantza; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzena; eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren arautegia onesten duena.

14. OINARRIA. ARGITARATZEA

Bat etorritz Dirulaguntzen 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Dirulaguntzen Udal Ordenantzak 4.4 artikuluan xedatutakoarekin, deialdi hau argitaratuko da DDBN-n, Donemiliagako udaletxeko iragarki taulan, ALHAOn eta udalaren web orrian, eta udalerriko kontzejuei jakinaraziko zaie.

15. OINARRIA. ERREKURTSOAK

Deialdi honen eta deialdi honetatik sortutako egintzen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, ezarritako epean eta moduan.

Erdoña, 2020ko ekainaren 11n

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO